Ngugi ere ingelesez hasi zen idazten, eta halaxe izan zuen lehen arrakasta, baina 1977k aurrera erabaki zuen kikuyuz idaztea bere fikziozko lan guztiak (besterik da ez-fikziozkoekin); «kolonizazio mental» horri itzurtzeko, idazle afrikarrak Afrikako hizkuntzetan idaztera dei egin zituen, salatuz ezen ingelesa *afrikartzeak*, Achebek-eta aldarrikatu izan zuten moduan, ez duela balio benetako zapalkuntzaren aurkako posizio gisa. Elkarrizketa batean esana du ez direla baztertu behar intelektual afrikarrek ingelesez edo frantsesez eginiko ekarpenak, baina erabat ustela dela pentsatzea horrela Afrikako hizkuntzei mesede egiten zaienik: «Afrikak baditu bere hizkuntzak. Intelektual afrikarrei dagokie hori defendatzea, intelektualak dira-eta hizkuntzaren aurrerabidearen erantzule. Intelektual batek hizkuntza abandonatu eta beste batean idazten duenean, hizkuntza buru bat gutxiago duela uzten du». Deitoratu du kolonizazioak Afrikako hizkuntzak afrikarren kontrako arma bihurtu dituela: «Tiroak azpiratze fisikorako tresnak izan ziren; hizkuntza azpiratze espiritualerako tresna izan zen».

Afrikako idazle ugarik Europako hizkuntzak erabiltzearen alde egin dute kolonialismoaren aurkako posizio gisa

Iritzi horietan, Ngugi wa Thiong'ok talka egiten du Chinua Acheberekin, zeinari iruditzen baitzitzaion alferrik dela «hizkuntza baten kontra borrokatzea». Halere, ondo posible da erasotzat jotzea Achebek berak bere ama hizkuntza igboerari buruz esan zituenak. Izan ere, Achebek Euskal Herrian ezaguna den diskurtso diglosikoaren oso antzeko batekin baztertu zuen *Gainbehera dator dena* eleberria igboerara itzultzea; haren esanetan, igboera dialekto sorta bat da, eta igboera batu formala misiolari kristauen ekimenez sortu zen, Biblia Afrikako hizkuntzetara itzultzeko. Acheberen esanetan, igboera batu hori «nahas-mahas estrainio bat» da, «dotorezia linguistikorik, erritmo naturalik edo ahozko benetakotasunik gabea», eta inola ere ez luke onartuko bere lana «fartsa linguistiko» horretara itzultzea. Hortaz, paradoxikoki, Afrikako literaturako lanik zabaldu eta seguru asko arrakastatsuena ezin leitu daiteke hizpide duen kulturaren hizkuntzan.

Emakume burutsu eta ausartak

Irati Majuelo

Klasiko baten itzulera dakar Igela argitaletxeak urte amaiera honetan, «hilketaren erreginaren» berrargitalpen azalberritu bat. Itxura freskoarekin iritsi da gurera Agatha Christie, baina ohiko dituen ezaugarri literarioak atzean utzi gabe.

Izan ere, *Hilketa lokartua* izenburutzat izanagatik, ezin esan irakurlea aise lokartuko denik, intrigak gidatutako eleberria baita hau. Hilketa posible baten bueltan korapilatzen dira trama osatzen duten pertsonaia ugariak, bakoitzak istorioari bere ekarpena eginez, edo, gutxienez, jazotakoaren bertsio propio bat emanez, amaieran puzzle osatu bat lortu nahian. Baina, sarri, piezak enkajatze hutsak ez du balio izaten egiaz jabetzeko, ez behintzat Marple andereñoak bezainbesteko mesfidantzarik ez izanez gero.

Marple andereñoaren abenturetako bat da hau, beraz, Christieren eleberri ugaritako protagonista izan dena. Gertakariak ebazteko ezinbesteko pertsona bada ere, ezohiko detektibea da Marple, jardun horrek misteriozko nobeletan izan ohi duen kanon maskulinizatuarekin bat egiten ez duena. Hala, Christiek emakume heldu bat proposatzen du jazotakoa ikertzeko, nahi duena lortzeko bere itxura adeitsu eta maitagarria eta gertuko harremanak baliatzen dituena: herriko dendariekin hitz-aspertuan ibiltzea, lagunen bidez ezezagunekin zitak lortzea edota lorategia txukuntzea: horra bere ikerketa-teknikak. Hortaz, gure dama zaharrak protagonismoa eta erdigunea ez ditu askotan hartuko, baina, buruargitasun eta zuhurtzia handiz, gainerako pertsonaiak misterioa argitzera gidatuko ditu.



'Hilketa lokartua'
Idazlea: Agatha Christie.
Itzultzailea: Xabier Aristegieta.
Argitaletxea: Igela.

Gwenda eta Giles ezkonberriak dira eleberriaren haria gidatzen duten pertsonaiak, Ingalaterran erosi berri duten etxean 18 urte lehenago jazotakoa argitzeko gai sentitu, eta, Marpleren eraginpean, horretan saiatuko direnak. Kasu honetan ere, misteriozko eleberrien eredu orokorretik at kokatzen du bere lana Christiek. Ohikoa den arren arrazoiketaren eta irudipenen arteko talka azaleratzea, azken horiei garrantzia emateak desberdin dezake, akaso, nobela hau. Gilesek, senarrak, gertakarien azterketa objektiboak proposatzen ditu aldiro, susmagarrien hitzetan oinarrituak. Horrez gain, bere buruari kasua argitzeko gaitasuna ziurtasunez aitortzen dio. Gwenda zalantzatiago agertzen da hasieran, batik bat bere eldarnio batetik abiatzen baita eleberri honen misterioa. Ordea, emazte gaztearen zantzu eta bihozkadek uste baino garrantzi handiagoa izango dute, baita Marpleren begietara ere. Horrez gain, Gwenda ez da atzean geratzen, eta une gehienetan berak eramango du, ausardiaz, ikerketaren gidaritza. Christiek, beraz, lehen planoa euren indar propioz hartzen duten emakumezko pertsonaiak eskaintzen dizkigu, eta haien ideia, uste eta zantzuei ematen die garrantzia.

Euskarara Xabier Aristegietaren esku arituen bidez ekarria, zaila da eleberri honi *spoiler*-ik gabeko kritika egitea. Detaile txikiei adi ibili beharko da irakurlea, esna, irudipenak egia eta baieztapenak gezur bilakatzea erreza baita iraganeko mamuak lokarturik ez daudenean.

Gorputzean goxo

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Esku artean aisa moldatzeko liburu azal-bigüna da, tamainaz ertaina (21x17 cm) eta luzera arruntekoa (32 orrialde). Testuak eta ilustrazioak batera doaz, orrialde bakunetan, edo bi orrialdekoetan bestela. Zehazki, testua marrazkiaren gainean ezarrita agertzen da, beti letra beltzez, tamaina eta tipografia mekanografiatu estandarrean.

Izenburuak iradokitzen duen legez, gorputzari buruzko hausnarketa sorta bat eskaintzen zaigu, testua ardatz duela.

Ilustrazioa testuari erantzunez ari da, asmakizunetako gakoak emanez, esku jolasetako pausoak erakutsiz edota testuaren mezuaren interpretazioa eskainiz. Kolore apalak erabili dira, naturalak deritzen horietakoak, batik bat berde eta hori laruak, gorri eta urdin minagoekin jantziak. Oro har, marrazketa garbia da, oinarrizko formetara ekarria, apenas hondorik gabe.

Narrazio laburrak eta hiperlaburrak eskaintzen dira, errimadunak eta poesiaren bestelako baliabideak erabiliz sortuak: hala nola errepikapena, metrika eta paralelismoak. Testu gehienak deskribapenak dira, asmakizun forma hartzen dutenak batzuetan. Emozio atsegina darie guztiei.

'Nire gorputzean bizi naiz'
Idazlea: Juan Kruz Igerabide.
Ilustratzailea: Ainara Azpiazu. .
Argitaletxea: Ikaslelkar..

Umore kolpeak

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Protagonista Biga da, ahalmen fisiko mugagabeak dituen animalia bat. Biga gai da kolorez aldatzeko, gorputz adarrak nahieran luzatu eta uzkurtzeko, eta ikusezin bihurtzeko, besteak beste. Gurasoak zakur antzekoak direlarik, Biga bestelakoa da, zehaztu ezina, «Biga: Benetan Identifikatu Gabeko Animalia» jartzen du atal bakoitzaren goiburuan.

Liburua hogeita bi istorio beregainetan banatuta dago, sarrera eta epilogoa barne. Gainera, aurkibidean aipatzen ez den *Jolasak* gehigarria du amaieran.

Ezaugarri asko partekatzen badituzte ere gainerako istorioekin, sarrerak eta epilogoak bi karaktere nagusiak aurkezteko erabiltzen dira: Biga protagonista sarreran, eta Leoi kameleoia epilogoan. Leoi kameleoia ez da antiheroi bat zehazki, baina Bigaren ifrentzu gisa funtzionatzen du. Kontakizun guztiak eskolan, etxean edota horien inguruetan gertatzen dira, parkea barne.

Gag edota umore kolpeetan eraikitako istorioak dira, animalia gizatiartuekin kontatuak, linealak, Leoi kameleoiaren zorigaitza (Bigari dion bekaitzetik eratorria) eta Bigaren izaera eta ahalmen apartekoekin josiak.

Ia ahaztu zait esatea: komikia da.

'Biga'
Idazlea: Romain Pujol. **Ilustratzailea:** Vincent Caut. **Itzultzailea:** Jon Muñoz. **Argitaletxea:** Astiberri.